

DIRU-SARRERAK

Gure helburua batez ere etekinak lortzea da, beti ere ingurumena errespetatuz. Hori dela eta, gure produktu guztiak jasangarriak direla nabarmentzea gustatuko litzaike. Sozietate mugatua eratu ahal izateko eta beharrezko hasierako inbertsioak burutzeko erabiliko ditugun hainbat diru-iturri ondorengoak izango dira:

Lehenik, diru-laguntzez baliatuko gara. Horretarako, BBVAko enpresa berriak sortzeko laguntzak eta dirulaguntzak izango ditugu, startups legea tarte. Bertan, erakunde publikoek, hala nola Merkataritza Ganberak (EntreComp4Transition) edo Kreditu Ofizialeko Institutuak (ICO), enpresa jasangarri berrientzako programak eta laguntzak dituzte. Gainera, Europa mailan, Europako Batzordeak etapa guztietan finantzaketa lortzea errazten duten deialdiak bultzatzen ditu: enpresa-sorkuntzatik hasi eta hedapeneraino. Ez hori bakarrik, BBVAk ere 3.000€-ko laguntza eskaintzen digu.

Era berean, ondorengo helbidean Urola-Kostako Udal Elkarteak eskeintzen duen laguntzaren inguruko informazioa:

<http://www.urolakosta.eus/eu/web/urolakosta-agentzia/enpresa-sortzeko-laguntza>

Horrez gain, IZAITErekin, irabazi asmorik gabeko elkarte eta iraunkortasunarekin konprometitutako enpresa pribatuen taldearekin, harremanetan jarri gara. Normalean beste enpresa batzuei babes ekonomikorik eskaintzen ez dieten arren, oraingoan gure proiektuak txundituta utzi dituelako eta finantzarioki babestu nahi dutelako egin dute. Oraingo honetan, 4.500€ emango dizkigute ekimen hau aurrera eramateko.

Jarraituz, gure enpresaren lau sortzaileok gure proiektua babesteko inbertsio bateratua egitea erabaki dugu. Gutako bakoitzak 3.000 €-ko ekarpen esanguratsua egingo du, guztira 12.000 €, gure enpresa-inbertsioan urrats erabakigarria emanez.

Azkenik, gure produktuaren bidez lortuko ditugun diru sarrerak ditugu. Gure zorro estandarrak erosteko moduan egongo dira 19,99 €-ko prezio erakargarrian. Gainera, 24,99€-ren truke zorro pertsonalizatuak izateko aukera zirrargarria eskainiko dugu. Gure salmentak datorren urterako proiektatuz, estalkien merkatuan arrakasta esanguratsua lortzeko kokatzen gaitu. Prezio lehiakorren eta hainbat lehentasun asetzen dituzten produktuen estrategiarekin, 18.000 salmentaraino irits daitekeen salmenten errendimendu sendoa aurreikusten dugu. Hori dela eta, 360.000€-ko irabazi sendoak lortzea estimatzen dugu. Dena dela, enpresa hazten doan heinean eta bezeroak lurralde nazionalean handitzen doazen bitartean, salmenta-kopuru handiagoa lortuko dugu; beraz, diru-sarrera handiagoak izango ditugu.

FINANTZIAZIO ITURRIAK	
Bazkideen inbertsioa	12.000€
EntreComp4Transition	Eskaintzen duten adina
BBVA	3.000€
Urola-Kostako Udal Elkarte	Eskaintzen duten adina
IZAITE	4.500€
GUZTIRA	19.500€ gutxienez
DIRU-SARREREN AURREIKUSPENA ENPRESA FUNTZIONAMENDUAN (URTEZ URTE)	
Salmentak	360.000€
GUZTIRA	360.000€

Guztia laburbilduz, gutxienerako 19.500 €-ko diru-sarrerak izango ditugu hasierako inbertsioan proiektua bultzatzeko, aldiz, enpresa mugimenduan dagoenean salmenten bidez urtez urte gutxi gorabehera 360.000 €-ko diru-sarrerak lortzea espero dugu enpresarekin jarraitzeko.